

# Atal teorikoaren memoria

Edizioa oharkabeen pasa ohi da egunerokotasunean, are gehiago, lehen begiradan baloratzen ez den esparrua da. Kontrara, ezinbesteko tresna da, izan edukia ordenatzeko, izan kontsumitzailea edo irakurlea erakartzeko. Finean, edizioak zera esan nahi du: hartzaileari helarazi nahi dioguna hautatzea, gertakaria, gaia, modua eta mezua kontutan harturik.

Horregatik, ikasgai honen helburua da aipatutakoa behar bezala landu eta ahalik eta fruitu gehien atera ahal izateko baldintzak jartzea. Egia da, prentsaren arloan zentratuta dagoela eta muga nabariekina topo egiten duela, baina, tira, ezer baino hobea da.

Arlo teorikoan zentratuta, hainbat gaiez dago hornitua, nagusiki hedabideek mundua ikusteko duten ikuspegi ezberdinen artean hausnartu eta errealitatea moldatzeko duten gaitasuna aztertu dugu. Horren ostean, edizioak izan ditzaken adarrak aztertu ditugu; prentsa edizioari irizpideak, hizkuntza zuzentasunaren garrantzia eta irudi eta testuaren uztarketa

Konkretuan ondorengoak da jorratu dugun gaitegia:

1. Gaia: edizioa zer da galderari erantzuna, komunikatzea helburu izanik mezuaren egokitasunaren azterketa (zuzen, argi, zehatz) eta sail ezberdinen garrantzia eta bakoitzak eragin dezakeenaren hausnarketa.
2. Gaia: errealitatea eta errealaren arteko azterketa, gaur egungo koordenadetan.
3. Gaia: hedabideek eta estatu modernoek duten harremaren hausnarketa.
4. Gaia: editorearen funtzioek eta koherentzia eta zuzentasunak duen esangura.
5. Gaia: estilo liburuaren azalpena eta horren bidezko jarduteko modua.
6. Gaia: zuzentasuna, zorrotasuna eta zehaztasuna lortzeko jarraibideak.
7. Gaia: testuaren eta argazkien arteko harremana.

Bere horretan, ikasgaia, eta beraz, prentsa edizioari dagokion edukia jorrazteko planteamendua egokia dela esango nuke. Batetik, edizioak betetzen dituen funtzioak eta editorearen lanak aztertzen direlako. Bestetik, gaur egunera ekartzen delako gaia. Zerbait gehitze aldera, historiaren inguruko azalpena bota dut faltan, datorren urterako gehitu daitezkeen zerbait delarik. Dena den, gaiez gai aztertzeari ekingo diot hurrengo erroetan, eta hausnarketak ere horrela egingo ditut; hau da, gaiez gai.

Lehenengo gaian sartuz, edizioaren oinarriko elementuak aztertu genituen. Finean, helburu konkretu bat lortzeko gauzatzen den testu, grafismo, irudi edo soinuen egokitzapen bezala definitu genuen. Bi helburutan sailkatu genituen egokitzapen horiek: batetik, mezuaren komunikatibotasuna (erregistroa, estiloa, zuzentasuna...); eta, bestetik, mezua hedabide bakoitzak izan dezaken mundu ikuspegira egokitzea (lerro editoriala deitu izan ohi diogu).

Mezuaren komunikatibotasunak lotura zuzena du kontsumitzaile edo irakurlearekin. Bera baita, egokitzapen horren azken emaitza ikusi eta kontsumitzen jarraitu edo ez neurtuko duena; funtsean, egokitzapen horren arrakasta neurtuko duena.

Mundu ikuskera finkatzeak, ezinbestean, hedabidearen arauak ezartzea esan nahi du. Batik bat estilo liburuan txertatzen diren arauei egin genien erreferentzia, baina baita gainontzeko erabakietan ikus daitezkeen horiei ere. Esaterako, hedabide batek martxan jartzen dituen sailetan, edo argitaratzen dituen albisteetan ikus daiteke.

Hortaz, sailka egiten den banaketa edo atalkatzea edizioaren parte esanguratsua da, eta komunikabidearen oinarria finkatzen du. Aipatutakoak, besteak beste, hainbat esparrutan eragiten du, geografian (horren arabera nongoa den adieraziko baitu), informazioarekiko hartu dezakeen jarreran (zer landu eta zer ez) eta ardatz ideologikoan (kultura, kirola, ekonomia...). Horrenbestez, oso garrantzitsua da atalkako sailkapena, hedabidearen oinarriak ezaugarritzen dituelako; hobeto esanda, zein gai jorratuko den eta nola jorratuko den adierazten duelako. Gainera, lan banaketan ekarpena egiten du, langileek behar bezala lana banatu eta informazio modu eraginkorrean argitaratu dezaten.

Gure ingurura ekarri genezake. Adibidez, Euskal Herria oinarri hartzen duten egunkariak existitzen dira, Espainia oinarritzat hartzen dutenak edo Frantzia oinarritzat hartzen dutenak bezalaxe.

Aipaturiko gaiak hausnarketa batzuk eragin zizkidan. Lehena, hedabideek gaitasun handia dutela gizartean eragiteko, albistea zer den eta zer ez erabakitzen baitute; bigarrena, aipatutakoa baina eragin gehiago dute, albistea nola eman ere erabakitzen dutelako.

Errelebantzia handia du horrek, komunikabideek betetzen duten rola aztertzeko baldintzak jartzen dituelako. Hortaz, hedabideek, oro har, erabakitzen dute zer den albiste edo zer ez; etxegabetzeak kasu gehienetan ez dira albistea izaten, bai, ordea, ustezko okupazioaren gorakada, eta etxeen segurtasun eza. Horri lotuta, albistea nola ematen duten ere aztertu beharrekoa da, etxegabetuen ikuspegitik argitaratu baino etxejabeen, bankuen eta funts putreen ikuspegitik lantzen baitute edukia.

Ezin aipatu gabe utzi, Tere Maldonadorren iritzi artikulua, klasean tratatuakoa. Berak ere informazioak ematen duen botereaz hausnatzen baitu, nik esandakoa berretsiz: "Informazioa boterea zela esan ziguten". Gain-informazioaren inguruan ere hausnartzen du.

Bigarren gaiak hedabideek estatu modernoarekin duten harremana du aztergai, errealitatearekiko duten erlazioa ere aztertzen du. Gai horri esker, auzitan jarri genituen errealia eta errealitatea zer diren, filosofiaren eta gizarte zientzien ikuspegitik. Lehenak, errealia, benetako gisa definitzen du, aldaezina izango bailitzan. Eta, errealitatea aipatutakoaren esperientzia bizitua dela dio. Bigarrenak, errealia, gertakaria dela uste du, eta errealitatea gertakaria partekatutako esanahien testuingurua.

Historian zehar trataera ezberdinak izan ditu errealitateak eta gaur egungo hedabideek edo mass mediak errealitatearekiko duten konpromezua ere aztertzea da. Klasean ikusi gisara, aipatzekoa da munduko maparen kasua (mapamundiarena). Izan ere, ezagunena den mapamundiak egia dezente ezkututzen ditu, adibidez, hainbat kontinenteen kokalekua eta tamainua nahasten eta modifikatzen ditu. Segun eta, nondik begiratzen duzun, hau da, ze ikuspegi ematen diozun, modu batera edo bestera ikusiko duzu; Europa izango da zentrala zuretzat edo Amerika.

Munduko maparena adibide soil bat da, errealitatea eta errealaren inguruan hausnartzeko. Auzitan jartzen dena, informazioaren boterea da, informazioa edukitzeak ematen duen pribilegiatu egoera hain zuzen. Estatuak horrekin ere jolasten dute. Haien intereseko proposamenak ezarri eta desadostasunak egon ez daitezten. Gorago aipatutako gaiari helduz, begi bistakoa da okupazioaren kontrako ofentsiba. Ezein hedabidek dio, okupazioa aurre egin beharreko fenomeno bat dela, oso minorizatutako egoera bat denean. Gainera, kanpaina horren ostean, segurtasun enpresen anuntzioak ezartzen dituzte. Beste modu batera esanda, errealitatearen aurpegi bat argitaratzen dute, langileria kikildu eta segurtasun enpresen propaganda egiten dute haien irabaziak handitzeko.

Gaia baliagarria izan daiteke, une oro, gaur egungo errealitatean txertatzen laguntzen duelako. Errealitatea eta hedabideek argitaratzen dutena askotan ez doaz elkarrekin, eta beraz, tentu handiz eta objektibotasunez landu behar ditugu egunerokotasuneko gaiak. Horretaz ohartzeko eta hein handi batean hedabide komertzial nagusiei jaramonik ez egiteko jarrera hartzen lagundu zidan bigarren gaiak. Baina, ezin uka, hedabideak egia sortzeko tresna direnik, eta zentzuen eta esanahien zoru komuna eratzeko tresna direnik.

Hirugarren gaiean hedabideen eta estatu modernoaren arteko harremanari heldu genion. Izan ere, tokian tokiko eta garaian garaiko erregimen politiko eta soziala zuzenki lotuta dago hedabideekin. Medioek gaitasuna dute gobernu edo erregimen zehatzak, indartu, betikotu eta transmititzeaz gain, haien sorkuntzan edo eraikuntzan ekarpena egiteko.

Ezer baino lehen inportantea da estatu modernoaren definizioa egitea. Oscar Oszlaken ustez lau ezaugarri betetzen ditu: gainontzeko estatuen subiranotasuna aitortzea, baliabideak ustiatzeko zilegitasuna izatea, indarraren monopolioa edukitzea eta izate sentimendu bat edukitzea.

Beharko dituzten gaitasunak, aldiz, ondorengoak: boterea kanpora ateratzeko, autoritatea instituzionalizatzeko, kontrola diferentzializatzeko eta nortasun kolektiboa

barnerarazteko gaitasuna. Aipatutakoen sakonketa ere egin genuen, hedabideekin harremantzeko puntuak baitira.

Lehen, ezinbestekoa da hedabideek nazioarteko komunitateari beren izaeraren berri emateko erabiliko dutelako. Bigarrena, hedabideek paper garrantzitsua jokatzen dute estatuaren joko-arauak transmititu eta zilegiztatzeko; finean, autoritatea bermatzeko tresna eraginkorra dira, gianera batzuetan joko-arauak aldatzeko gai dira. Hirugarrena, estatuak finantziarioz betetzen ditu, kapital sinbolikoaren ekoizpenarekin lotuz; eta, ondorioz, estatuak hedabidea kontrolatzeko saiakera egingo du. Laugarrena, estatu-nazioen identitatea sustatu eta sortzen ere saiatuko dira hedabideak, herritarrek barne pertenezia edo sentimendua izan dezaten.

Dena den, estatuaren eta hedabideen harremana ez da inondik inora lineala, eta tokian tokian baldintza eta egoera ezberdinak egon dira.

lido beretik, historiari begiratzea nahikoa da harreman horretaz jabetzeko. XIV eta XV. mendeetan lehen masa argitalpenak egiten dira. XVI eta XVII. mendeetan, kazetaritzaren lehen hastapenak ikusten dira; legedi eta gorteko kroniken argitalpenekin. XVIII. mendean, bere tokia hartuz doa testuinguru berria (Frantziako Iraultza, industrializazioa, burgesia gailentzea, premia politiko berriak...). XIX. mendean, egunkarien zabalkundea ematen da. XX. mendean, gertakariak nagusitzen dira prentsan.

Hedabideen eta estatu modernoaren lotura ilustratzeko, adibide bat ekarri nahiko nuke, hain justu, El País eta PSOErena. El Paísek izandako arrakasta PSOEk izandako arrakastarekin batera neurtu behar da; hau da, PSOEk arrakasta izan duenetan, El Paísek ere bai. Trantsizioa edo Felipe Gonzalezen gobernua izan daitezke horren adibide argiak. Trantsizioan egonkortasun handia lortu zuen El Paísek, eragiteko gaitasun handia baitzuen. Ondoren, Felipe Gonzalezen gobernua zuzenki babesteko gai izan zen.

Hedabideak eta proiektu politikoak lotura zuzena izan dute historian zehar. Nahi bada, hedabideak horreatarako ere sortu direla esan daiteke; beste era batera esanda, proiektu edo proposamen politiko bat indartu edo gutxieteko sortu dira maiz hedabideak. Ikusi besterik ez dago, oro har, lerro editorial independentea duten hedabideak oso gutxi direla. Eta, ustez independenteak diren horiek, enpresa, banku eta korporazio handiek finantziatzen dituztela. Kontrara, benetan independenteak direnak, diru-iturri publikorik jasotzen ez dutela; besteak beste, Gedar Langile Kazeta eta Argia.

Laugarren gaia, editorearen ezaugarriez eta funtzioez hitz egiteko probestu genuen. Alex Grijelmoren ustez editorea erredakzio bateko atezaina da. Horrenbestez, editorearen menpe dago, hein handi batean, hedabide baten kalitatea. Esan daiteke, ondorengoak direla eginbeharrak: denbora faltari, diseinu arloko exijentziak betetzeari, irakurleentzat osoa, zuzena eta interesgarria den eskaintza osatzeari aurre egitea. Eginbehar horiekin lotuta, kazetari taldea koordinatu (eginkizunak banatu, lan giroa zaindu...) eta testuak berrikusi eta kalitatea kontrolatu beharko du (tituluak zuzendu, sarrera erakargarriak lortu...).

Esan bezala, erronka handiak ditu editore batek, horiek guztiak behar bezala betetzeko ezaugarri zehatz batzuk eduki behar ditu. Hedabidea argitaratzeko erabiltzen den hizkuntza behar bezala ezagutu beharko du, une oro zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko. Aktualitatearen gaineko informazioa eduki beharko du, agenda aurreikusten laguntzeko. Kultura orokorraren berri izan beharko du, gehienbat albisteen hierarkia ordenatzeko. Ezinbestean, begirada kritikoa izan beharko du, albisteen eta gertakarien muina behar bezala arakatzeko. Gainera, medioa kontsumitzen dutenen izaera ezagutu beharko du. Azkenik, antolaketarako eta lan prozesua eta lantaldea kudeatzeko gaitasunak izan beharko ditu.

Editorearen lan prozesuak ere, nik uste nuena baino pauso gehiago ditu. Hasiera aurre edizioan kokatzen da; aurreikuspena egiten du, agenda ordenatzen du eta lana banatzen du. Fase honetan, eginbehar nagusia zer den albiste eta zer ez zehaztea da, baita zein den lehen edo bigarren mailakoa erabakitzea ere. Ostean, lana banatu beharko du, langileen baldintzak neurtu eta bakoitzari lan konkretu bat diseinatu beharko dio. Hari beretik, edukia nola landu pentsatu beharko dute (zein ikuspegitik jorratu, zein iturriekin hitz egin...), editoreak oinarriak ezarri ditzake baina taldean landu beharko dute.

Lehen pausuak gauzatu ondoren, kazetaria sartuko da ekuazioan. Berak, egingo du egin beharrekoa eta editoreak errebisatu egin beharko du. Erredaktorearen lana aztertu eta editoreak pentsatu beharko du ea hasiera, titulua, idazkera, etab. egokiak diren.

Finean, kazetariak bildu duen informazioa egiazkoa izateaz arduratuko da, testuingurua behar bezala azaltzen duela bermatuko du eta idazkera argia, zehatza eta zuzena dela ziurtatuko du.

Klase magistraletan editorearen ezaugarriak eta funtzioak tratatu baino lehen ez nekien zein eginbehar zituen. Klasean landu genuenetik, askoz gehiago errespetatzen dut editorearen figura. Askotan, itzalpean dagoen pertsona izanagatik, badirudi ez duela lan handirik egiten. Gure pentsamenduak, figura publikoak mirestera garama behin baina gehiagotan, horien arrakastaren arrazoia, ordea, itzalpean bere alde egin duten guztiei zor die. Horretaz jabetzeko, ezinbestekoa izan da laugarren gaia.

Bosgarren gaian estilo liburuaren landu genuen; zehazki, estilo liburuaren ezaugarriak eta historia laburrari begirada bat eman genion. Era guztietako argitalpenen idazketarako eta diseinurako arauak zirela adierazi genuen. Erabilera orokorreko zein arlo jakin eta espezifikokoak izan daitezke. Zuzentasunaz haragoko egokitasuna eta estetikotasuna sartzen da jokoan. EITBk honela dio: estilo liburuaren helburua informazioa prestatzen duten profesionalen aplikagarri zaizkien printzipio deontologikoak finkatzea da.

Oinarrian, estilo liburuaren egitekoa estilo bat ezartzea da, zeinak komunikazio ahalmena handitzea duen helburutzat. Langile guztientzat praktika bateratu batzuk indartuko ditu, bai hizkuntzaren erabileran baita joserka, ortografia, tipografia eta diseinuan ere.

Esan daiteke, bateratzeko, hiztegi komun bat sortzeko, zalantzak argitzeko, zenbakiak, letra larriak, siglak zehazteko, generoak adosteko, oinarrizko printzipioak adosteko eta informazioa tratatzeko jarraibideak lantzeko funtzioa betetzen duela.

Urteak aurrera egin ahala, aldaketa nabarmenak egin zaizkie estilo liburuei; izan ere, egokitasun eta estetikotasun estandarrak ere testuinguru eta garaiaren arabera aldaketak jasan ditu. Ezin aipatu gabe utzi, prentsan ez ezik, beste hainbat arlotan ere estilo liburuaren erabilera ohikoa dela; esate baterako, medikuntzan.

Hedabideetako estilo liburuak bigarren mundu gerra osteko urteetan izan zituzten hastapenak. Adibidetzat jar daitezke, Associated Press (AP), The New York Times edo The Guardian hedabideen estilo liburuak. Gaztelarazko lehen urratsak, Ameriketan eman ziren, hain zuzen, Kuban (Manual de Selecciones, 1959an), Mexikon (1964an), Buenos Airesen (1974an). Horren ostean heldu zen Espainiako Estatura, 1975ean. Manual de Español Urgente Agencia EFEkoa da ezagunena.

Nagusitasun handia izan zuen El Paisek 1978an argitaratu zuen estilo liburuak, zentralitatea hartu baitzuen Espainiako Estatuan. Esan behar da, gaur egungo estilo liburuak aurreratuagoa eta testuinguruari egokituago dagoela, 2021ean argitaratu zen eta. Nire ustez errelebantzia handiena dutenak behintzat, egunero egiazko informazioa, interesgarri, eguneratu eta kalitate handienekoa argitaratzea dira. Iturrien erabilerak zintzoa izan behar duela aipatzen du, eta gatazka batean, nahitaez, bi aldeak bilatu edo islatu behar direla defendatzen du. Salbuespen batekin, edozein alde biolentzia erabiltzen ez badu bere helburuak lortzeko.

Aipatutakoak, edozein hedabidetan aurki daitezkeen neurria edo arauak dira. Ezustean harrapatu ninduen, ordea, ondorengoak: ez da boxeoari buruzko informaziorik argitaratuko. Zer demontre? Ustezko bakea defendatzen dutenek, eguneroko biolentziaren legitimazioa egiten dute. Etxegabetzeak behin eta berriz ezkututzen dituzte, Espainiar Estatuko "gose-hilarak" ezkututzen dituzte edo osasun publikoaren txikizioa ezkututzen dute; beste modu batera esanda, benetako biolentzia ezkututzen duten bitartean, etsaitasunik gabeko kirol bat ez argitaratzea erabakitzen dute. Hausnarketa hori egin nuen, klasean gai hau tratatu genuenean, egia esan ez nekien gai honen inguruan eta harriduraz jaso nuen.

Hedabide euskaldunek ere badute zer esan estilo liburuei dagokienean. 1990. urtean euskaldunon egunkariak oinarriak ezarri zituen ondoren estilo liburuak osatzeko. Euskal lurraldeen eremuei nola deitu, beste alfabetoetako hitzak nola erabili eta siglak nola argitaratu adostu zuen. Horri esker, hiru estilo liburu argitaratu zituen euskaldunon egunkariak: lehena, 1992an; bigarrena, 1995ean; eta, hirugarrena, 2001ean.

Horri jarraiki, Berriaren estilo liburuak osatu zuten, 2006an. Zertarako balio duen definitzen du, sareko baliabide batzuk eskaintzen ditu, eta batez ere deotologia arauak ezartzen ditu. Harritzekoa da, EITBren estilo liburuak hurrengo urteetan argitaratu izana, 2017 hain zuzen. Agian, oinarri edo arau batzuk definitu gabe izateak oso hedabide subjektiboa izatea eragin dezake, edo nagusi eta editoreen arteko kaosa sortu. EITBren estilo liburuak ere, El Paisen antzera, edozein hedabidek onartu dezakeen estilo liburuak da. Oinarri-oinarrizko arauak ezartzen dituzte, ustez objektiboa eta inpartziala izateko. Errealitatea beste bat izan ohi da, nahiz eta enpresa publikoa izan.

Athletic eta Errealaren arteko lehia eduki beharreko jarreraz hitz egin genuen klasean, estilo liburuan adibide hori jartzea adierazgarria da, bat edo bestea defendatzeko akusazioak egin ohi zaizkielako hedabideei.

Gauzak horrela, estilo liburuak oinarrizko arau edo estiloa zehazten du. Jardun publikoa duen edozeinentzat ezinbestekoa dena, prentsan batik bat. Horregatik, premia handikoa da estilo liburuak eguneratzen joatea. Dena den, EITBk estilo liburuak hain berandu argitaratu izana hein handi batean kezkarria da.

Seigarren gaiak, editorearen gisara, aurreiritziak sortu ditzake, lehen begiratuan ustez ezer errelebantea ez delako, baina ostean ezinbestekoa dela ohartzen garelako. Lehendik aipatu dut, aurre edizioaren ondoren, bigarren eginkizuna datorrela, berrikusketarena.

Zuzenketan kontutan hartu beharreko neurriak gutxi baina garrantziatsuak dira: zuzentasuna (eduki edo hizkuntza aldetik), zehaztasuna, egokitasuna (estiloa) eta laburtasuna. Esan bezala, hauek gabe argitalpen batek mami eta erakargarritasun guztia galtzen du.

Banan bana aztertuko ditut, klasean egin bezala. Zuzentasunak edukian, terminologian, ortotipografian eta hizkuntzan akatsik ez egitea esan nahi du. Behin oinarri hori landuta, arau ezberdinak erreparatu genituen. Baliagarria egin zitzaidan, bada, batzuk ezagunak banituen ere beste asko ez; adibidez, izendegien kasua. Zorroztasunak, ordea, beste esanahi bat dauka. Esaldi bat zuzen egon daiteke, baina zorroztasuna falta atxikitu ahal zaio. Hau da, hobeto idatzita egon ahalko luke, nahiz eta gaizki idatzita ez dagoen.

Zehaztasuna, kazetari onaren ezaugarria da. Gaia azaltzeko behar dena eta behar ez dena sailkatzean datza, eta eman behar den hori behar bezala ematean. Datuen falta ekidin behar da, zehaztasun falta adierazten duelako.

Laburtasunak, lotura zuzena du erakargarritasunarekin. Izan ere, luzera handia izateak gainontzeko ezaugarri guztiak hanka motz uzten laguntzen du. Argitaratutako testuak, halaber, laburtasuna errespetatu behar du, beharrezkoa ez den informazio alde batera utziz. Beraz, erronka nagusia hitz gutxirekin asko esatea da.

Aipatutako ezaugarriak, zuzen betetzea garrantzia handiko eginbeharra da hedabideentzat; edukia erakargarria izan dadin, funtzio berezia betetzen baitute. Testua luzea bada inor ez da hasiko irakurtzen, testua zehatza ez bada irakurtzen ari den bitartean nazkatu egingo da, eta zuzentasunik ez badu amore eman eta ez du irakurtzen jarraituko.

Argazkiek hedabideetan betetzen duten papera funtsezkoa da, eta horri heldu genion zazpigarren gaian. Argazkiek funtzio ezberdinak bete ditzakete prentsan: gaurkotasuneko informatiboak (albistearen osagarri izan ohi da), argazki notiziak (irudia da bere baitan albiste), dokumentalak (iraganeko argazkiak), ilustratzaile generikoak (ez dira informatzaileak, osagarriak izan ohi dira) eta elkarrizketetako erretratuak (irakurlearekiko gertutasuna adierazten du) izan daitezke.

Hedabideek estilo liburuetan trataera ezberdina ematen diote argazkiei. Berriak informazio elementu gisa irudikatzen ditu, inolaz ere orria betetzeko tresna gisa. Planoak tentu handiz tratatu behar direla dio, istripu eta hondamendietan adibidez. Sinadura errespetatu eta egileari egindako lana aitortzea ezinbestekoa dela uste du.

Hedabide ezberdinetan hedatuta daude hainbat akats. Hala nola, balio informatibo eskaseko argazkiak argitaratzea (prentsurrekoetako argazkiak adibidez) eta enkuadrea ez errespetatzea (argitalpena egoki geratzeko aldaketak egitea).

Argazkiek irakurlearen begia bideratzen dute, askotan testu luzeek lortzen ez dutena. Horregatik, argazkiak deigarria izan behar dute, eta edukiaren osagarria badira ere zer esana sortu behar diete irakurleari. Nik askotan argazkien arabera erabakitzen dut zer irakurri eta zer ez, segur aski gehiengo batek ere hori egiten du.

Laburbilduz, klase magistraletan garatu dugun gaitegi teorikoa oinarrizkoa da prentsaren zuzentasuna aztertu nahi badugu. Finean, irakurlearekiko harremanean aurrera pausoak emateko, eta geroz eta arrakastatsuagoa izateko premisak dira aipatutakoak.

Lehenego gaietan objektibotasunaren inguruan hitz egin genuen, errealitatea eta erreala eta hedabideek estatu modernoarekin izan dezaketen lotura aztertuz. Ezinbestean, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko lehiaz aritu ginen, bat besteari gailendu ohi zaion joera (Subjektibotasuna objektibotasunari) aldatzea proposatu genuen.

Gainontzeko gaietan editoreak betetzen duen funtzioa izan genuen hizpide; hain justu, jarraitu beharreko estilo liburua eta zuzentasunaren inguruan. Gainera, argazkiek prentsan jokatzen duten paperaz hausnartu genuen.

Funtsean, edukia egokia izan da, prentsa edizioaren gaiak gehiago jakiteko baliagarria izan delako. Zenbait figura eta funtzio itzalpetik ateratzeko ere baliatu dut; esaterako, editorearena. Kontrara, historiari errebaso sakonagoa egingo nioke, bilakaera zehaztasunez aztertzeko.